



2015eko proiektuak

SARE HANDIAK BILTEGIRATZEKO PABILOI-

PROIEKTUA

Laburpen-fitxa

HONDARRIBIKO BABES-PORTUA



Deskribapena	Egilea / Kontratista / Data	Zenbatekoa	Epea
Proiektuaren idazkuntza	Antón Pagola Aizpiri (Urtarrila, 2015)	765.461,88 € (BEZik gabe)	14 hilabete

Informazio gehigarria: Proiektua egiteko, Portuaren Plan Berezia aldatu behar da (aldaketa izapidetzen ari dira gaur egun)

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, Xaiak sareentzako eraikina proiektatu zen erabilerarako ari dira erabiltzen, baina arrantza-teknikak izaten ari diren bilakaera bizkorra kontuan izanda, egiaztatzen ari dira eraikina eskas geratzen ari dela portuaren egungo arrantza-flotak erabiltzen dituen sare handietarako. Sare handi horien gaineko lana arrain-lonjan egiten ari dira gaur egun, eta lonjaren azaleraren zati handi bat ezin da dagokion erabilerarako erabili horren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, kokaleku berri bat bilatu dute sare berriak konpondu eta biltegitratzeko premia berri horri erantzuteko, egungo portu-azpiegituren beste dependentzietan zertan eragin gabe.

Bolumen bateratu eta monolitiko gisa planteatzen da sare handietarako pabiloia, sareak berak zein sareekin jardunean ariko diren makinak bilduko dituen. Horrela, altuera baxuago batekin kontradikereen topetik hasiko den bolumen gisa planteatzen da, eta apurka-apurka irabaziko du altuera ipar-mendebaldeko aldean; bertan izango dira sekzio-ate handiak bolumenera sartzeko.



PAISAIA-INTEGRAZIOA

Eraikinaren kokalekuak intrusiboa izatea saihestu behar du albait gehien, kaiaren tope publikotik altuera txikiago batekin hasiz, bigarren planoan geratzeko moduan tope horrekiko, eta bolumena irabazten du arrantzagunerantz, hau da, kairantz.

Kaiak lehendik berezkoa duen irudia eman nahi diote eraikinari erabilitako materialek, hala nola aluminioak eta hormigoiak, egungo Xaiak sare-biltegietan agertzen direnak, material egokiak baitira gune horretako erabilerarako eta itsas giroarako.